

ttipi-ttapa

1991.eko Urriak 10

71. zenbakia

dohain banatzen da




Ikasle gehienak euskaraz



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 15 18
Doneztebe



DONEZTEBE:

- Bi pisu alkitatzeko prest. Hutsik. 25.000 pzfá. hilabeteko.
- 120m²ko etxebizitza mobleztatua. Osasun Zentruaren ondoan. 9.200.000 negoziagarriak. Urte batez eta hilabeteko 50.000pzatan alkitatzea segurtatzen da.

LEGASA:

- Luxuzko pisua (Construcciones Iturria) bi kotxerendako garajearekin. 8.000.000 negoziagarriak.

ELIZONDO:

- Pisua 7.500.000 pztatan.
- Pisua 4.800.000 pztatan.
- Apartamentua 4.650.000 pztatan.

NARBARTE:

- Herriko Etxearen ondoan moldatzen ari den etxean, haritz egur eta harriaz ari dira egiten 3 etxebizitza eta bajera komertziala.

ELGORRIAGA:

- Sekulako aukera. Haritz egurrez mobleztatutako sukaldea eta kalefakzioa duen etxebizitza.

AUKERA IKARAGARRIA:

- Zure borda, baserria, lur-eremua edota herriburuan duzun etxea, Alicante edota Mediterraneo aldean dugun pisu edo apartamentu baten truke.

ARANTZA:

- Kalitate haundiko pisuak. Goizetan bista ezinederragoak. Inguruko etxegilerik hobereena den Ignacio Tellexteak eginak. 10.000.000

BERA:

- Hotel LARUN izandakoan, Euskalduna Jatetxearen ondoan (bere betiko sukaldaritzagatik Euskal Herriko hoberenetarikoa bat), 90m²ko pisua dago. Hiru logela, 2 bainugela Porcelanosa zeramikaz apainduak, sukaldea, kalefakzioa gaueko tarifa duen akumuladorearekin. Bista ederrak. Eguzkitsua. Egokia ileapaindegia, mediku kontsulta edo bulegoren bat montatzeko. Etxe honen bajeretan Postetxea (Correos) egonen da. Aparkaleku zabala.
- Garaje lekuak, bakoitza ate elektronikoa eta argindarrez hornitua. 1.500.000tik gora.

AIZU!
Begira hau!

- Sekulako aukera. Elgorriaga, Narbarate, Legasa, Mugairi edo Donezteben pisu bat erosiz gero edota zuk bat mobleztatua baldin baduzu, hilabeteko 45.000tan eta batetik 5 urte bitarteko denboraz Sunbillako saihebidetan ariko diren langileei alkitatu ahal izatea **segurtatzen dizugu**. Ordainketak eta pisuak ongi zaintzea segurtatzen dugu.



Dugun eskaria haundiarengatik, Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortzirak eta Ultzama aldean salgai edo alkitatzekotan daude etxe, pisu, baserri eta lu-eremuak nahi ditugu. Eskura ordaintzen dugu. Diskrezio osoa.

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Euskara irakaskuntza nagusitzen ari" , 5.018 ikasleetatik % 55,9ak D ereduan ari dira
Joxemanuel Irigoien
-
- 26 ELKARRIZKETA:** "Nazioarteko erakusketetan ibiltzeak izugarrizko segurtasuna ematen dit nere lanean" dio Tere Ibarrek, Elgorriagako arotxak.
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Nafarroako Herriz Herri txapelketan Sunbilla garaile, Beran aintzinetik"
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Patxi Petireña, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza....

Inprimategia: Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun 453039

Gartzain 580451

Oronotz-Mugaire 592024

Ituren 450183

Sunbilla 450283

Goizueta 514067

Igantzi 637755

Arantza 634131

Bera..... 630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea 614600

Nafarroako ospitalea..... 102100

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria 226404

ANBULANTZIAK

Oitz 450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire 592044

GARRAIOAK

Bidasotarra 630279

Baztanesa 580129

Leitzarain 515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO**ZENTRUAK:**

Elizondo 580730

Lesaka 637154

Bera 630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak**U Urriaren 12-13an,**

Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

U Urriaren 19-20an

Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

W Deialdiak**U ARANTZA,** Urriaren 10ean, arratsaldeko 5etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.**U ETXALAR,** Urriaren 24an, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.**W Ekitaldiak****U BERA****U Urriaren 16an:** "Larra Belagoa Paraje insolito" pelikula Kultur Etxean, arratsede 8etan.**U Urriaren 17an:** "Daulaghiri-ra Nafar Espedizioa" pelikula Kultur Etxan arratsede 8etan.**U Urriaren 18an:** Mahaingurua: «Agroturismoa eta bere proiektzioa» Jamotenean arratsaldeko 7etan.**U Urriaren 22an:** Hitzaldia: "Norbera-sendatzea". Hizlaria: Iñaki Munita. Jamotenean arratsaldeko 7etan.**U Urriaren 24an:** Hitzaldia: "Gizakiaren bide espirituala". Hizlaria: Iñaki Munita, Jamotenean arratsaldeko 7etan.**W Bertsoak****U LESAKA****Noiz:** Urriaren 12an, arratsaldeko 7etan.**Non:** Pilotalekuan.**Bertsolariak:** Jokin Sorozabal, Jon Maia, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Haritz Lopategi eta Igor Elorza.**Gai-jartzaileak:** Iñigo Olaetxea eta Estitxu Fernandez.**W Bota bertsoa****Marta ITURRIA****Gaia:** Bortzirietako Bertso Eskola**Doinua:** Aita izana...

Aldez aurretik elkartu eta Azaroan le(he)n saioa gero Uztailan: beroa, jaiak geldirik uda osoa orain Irailan hor jarraitzeko bada gogo ta asmoa eta nahiz eta aurrerapen hau ez den oraindik nahikoa: Nafarroako bertsolaritza hainbat esperantzaz doa

Baina ez dezagun goizegi ospa lortu ez den garaipena bertso eskola irekitzea ez da lehen ta azkena hamar bat lagun gara Arantzan ezin egin behar den dena zatoz gugana ta erakutsi bertso munduan zarena denon artean zabal dezagun euskal kultur ederrena.

AGENDA

Ekitaldia k

LESACA

KULTUR ZIKLOA

Noiz: Urriak 10-12.

Urriak 10: Koldo Amestoy, ipuin kondalaria, Setan Kasinoan..

Urriak 11: Bideo emanaldia Setan Kasinoan; "Espioiak gu bezala" filmea.

Urriak 12: Gontzal Mendibil abeslariaren kantaldia 11etan Lesakako Pilotalekuan.

ETXALAR

KULTUR ASTEA

Urriak 11: Audiobisualen emanaldia arratsaldeko 7etan.

Urriak 12: "Mini-karts" eta haurrentzako motoak plazan.

Urriak 19: Gau-pasa: Zarama, Auskalo, Zer Arraio eta Izadirekin.

Urriak 20: Arratsaldeko Setan J.Mixel Bedaxagar kantari xuberotarraren emanaldia.

Gastronomia

ERBI ZIBETA

Osagaiak

4 lagunendako:

Eربي bat, 2 tipula, 250gr. azanahoria, baratxuriak, 4 porruren zuria, 2 reineta, ozpina, ardo beltza, gatza, piper beltza, tomilloa, 2 erramu hosto.



Tere Santxotena emana
SANTXOTENA - ELIZONDO

24 ordu aintzinetik erbia ongi garbitua baina duen odola

ongi probetxaturik puxkatu eta ontzi batetan paratuko dugu barazki guziekin batera gaisetarik gatza, piper beltza, tomilloa eta erramu 2 hostoak, ozpin pixka bat eta ardoz estaliko dugu.

Erbia irinan pasa eta prexistu, ondoren barazki guziak erantsi eta utzi poliki, poliki egosten. Egina dagoenean erbia alde batera utzi eta bertze guziarekin purea egin eta gaisetarik bota.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.100 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 150 pzta/kilo **Urdamak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....520
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....570
1.koa.....530
2.koa.....500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 23.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 35.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESACA

MOBLEAK METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera joan gara.

Konpromisorik gabe!!

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESACA

GRUPO



ZURICH


ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



11 galdera Ilabur

Zinema



► **Domintxo Igarzabal**
Lesakako pelukeroa
eta egunkari-saltzailea

- Zer nahiago, ilea moztu ala bizarra kendu? Ilea moztu.
- Ilea mozterakoan, aitzurrak ala ile-labana? Bietara.
- Ilea, "raya"kin ala "raya"rik gabe? Aurpegiari ongi dagokiona.
- Laka ala gomina? Marka batzuk ilea hondatzen dute. Bat ere ez.
- Soilentzat peluka ala zapela? Zapela.
- Irakurtzeko, Diario Vasco ala Diario de Navarra? Biak.
- Entseu ala Hola? Hola emakumeentzako eta artikulo onak irakurtzeko, Interview.
- Egunkarietan kirola ala politika? Kirola.
- Egunkarien banatzea, bizikletaz ala kotxez? Bizikletan, 10 urte nituenetik banatzen ditut.
- Periodikoa leitu ala telebista ikusi? ETBn kirolak eta euskaldunen historia.
- Igandetan, periodiko saltzen ala txikiteoan? Bietara.

► **El silencio de los corderos**
Jonathan Demme
USA 1991

Garai batean Dracula, Hombre lobo, Frankenstein eta bertze filma batzuren bidez beldurra sartu nahi izaten ziguten, gaur egun haur kontu bezala gelditu dira. Geroago, hil-bizien filmak izan genituen beldurgai. Modu hori bukatu zenean zientzi fikzioa eta parasikologia izan ziren. Nork ez du gogoratzen "Poltergeist I" eta bere efektuak?

Hainbertze gizon indartsu eta polizi onen filmak pasa ondo-



ren, gure pantailetan daukagu uste gabeko filma gogor eta hagitz interesgarri hau.

Clarice, polizi agente izan nahi duen neska-ri lana lortzeko eskeintzen diote kasua; hau da: sikopata erahiltzaile arriskutsu bat harrapatzea. Sikiatra baten la-

guntza eskatzera joaten da baina honek, nahikoa lan dauka bere laguntzat afari bereziak prestatzearekin.

Jende hoién pertsonalitatea zatitzen saiatzen da neska hau, azken ahalegin batean. Izan ere, bi sikopata hoién pertsonalitateak,

soberan dauden argitasun eta kontraerrenez hornituak, nahasi egiten dute Clarice.

Merezimendu osoz irabazi zuen filma honek Berlingo bigarren saria eta guk, hamarretik sei puntu ematen dizkiogu.

MARIANO



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA



Xorroxin irratia entzun daiteke dagoeneko Bortzirietan, Frekuentzia Modulatuaren 107,5 zenbakian, Legateko kaskoan ezarritako antenari esker. Horrela, duela 10 urte Baztanen zehar bere ahotsa zabaltzen hasi zen irratia, Malerrekara eta Bortzirietara ere zabaldu da. Gogoratu, FM 107'5ean Xorroxin Irratia!



Rikardo Baroja ikastetxeko tarteko euskara taldeko 6., 7. eta 8. mailako ikasleak izan genituen bisitari Irailaren 26an. Erredakzioa eta argazki laboratorioria ikusteaz gain, galdera ugari egin zuten. Ondoren, argazkirako ere gustora prestatu ziren.

Nekazal giroko turismoari buruzko mahaingurua Berako Jamotenean, hilaren 18an



«Agroturismoa eta bere proiektzioa» titulupean, mahai - inguru interesgarri bat burutuko da datorren ortziralean, Urriak 18 eta arratsaldeko 7etatik aintzineran, Gure Txokoa elkartearen egoitzan (Jamotenea).

Mahai - inguru honetan parte hartuko dutenak, honako hauek izanen dira: Mikel Petrirena (EHNE - Nafarroako lehendakaria), Pello Iralur (Iparral-

deko ELB sindikatoaren partaidea), Jose Migel Galarregi (Elgorriagako alkatea), Eli Azkarate (Servitur enpresakoa), Nafarroako Gobernuako Turismo sailko partaide bat eta turismo programan sartutako baserritar bat. Moderatzaile bezala, Pello Apezetxea arituko da.

Dudarik gabe, debate interesgarria, gaur egun, denon ahotan aurkitzen den gai interesgarri honi buruz.

INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



GEZURRA BADIRUDI ERE...

Irailaren 12an kaleratutako 69. zenbakian, atal honetan berean agertutako idazkiaz zerbait adierazi nahigenuke.

Izan ere Baztandarren Biltzarra egunean bazkariarekin gertatutako ezustekoaz geu izan garela lehenbiziko sentitutakoak, bazkariak arduratzen den komisiorekin batera. Bazkarian arin xamar geratu zinetenei barkame-

nak eskatzen dizkizuegu berriro ere. Lehenbiziko aldida horrelako zerbait gertatzen dela eta saiatuko gara behar diren neurriak hartzen berriro gerta ez dadin, nahiz eta 1.700 lagunendako janaria kalkulatzeko zaila izan.

Urtez urte egun hau ahalik eta hobekien antolatzen saiatzen garenok aipatu idazkiak egin digun mina adierazi nahi dugu. Alde batetik anonimoa izan delako eta bertzetik,

okerragoa oraindik, guregana etorri ordez aldizkari honetara jotutako, horrela iduri baitu kasorik egin ez diegula eta salaketa modu bakkarra prentsan azaltzea izan dutela. Gure ustetan kritika eta proposamen guztiei irekita gaude, egin-kizunen onetan baldin bada, noski. Uste dugu ez dela hau baztandar senar-emazte honek bilatzen duena, interes pertsonalagoak baizik; bertzerik ez baitugu pentsatu nahi.

Hala eta guzti, Baztandarren Biltzarra egunaren antolaketa lanetan aritu zirendako aforria Urriaren 12an izanen denez, konbidatuta geratzen da senar-emazte hau, hala nola egoera ber-

dinean izanik, kalte-tuak sentitu diren guztiek.



Baztandarren Biltzarra
Elkarteko Batzordea

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ. edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA



MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Euskal Herriaren independentziaren aldeko mozioa ez zuen onartu Udalbatzak

ROMAN HARRIBILAGA

Herrialderen aurkako 4 botoez –Iriarte alkatea, Gartzia, Urtxegi eta Telletxea– eta Eusko Alkartasunako Irazokirenarekin, alderdi bereko Agerri eta Senper-en abstentzioaz eta Herri Batasunako Goia eta Gogorza zinegotzien aldeko botoez, Udalbatzak ez zuen onartu Euskal Herriaren independentziaren aldeko mozioa joan den Irailaren 23ko osoko bilkuran. Berau, Berako HBk aurkeztu zuen, nahiz eta bertze taldeekin testu bateratu bat lortzeko saialdiak egin izan. Osoko bilkurara ez ziren azaldu Herrialdeko Lekuona eta EAko Prieto.

Kontraesanak eta haustura Mozioak sorterazi zituen zenbait gauza azpimarragarri. Horien artean, mozioa eztabaidatzerakoan, bilkuraren atzerapena Alkatearen eskariz, Herrialdeko kideen ahobatekotasuna, Alkateak bere dudak eduki arren eta EA



Independentziaren aurka agertu zen Udalbatza



Datorren urte haserako zabalduko da gasolindegi berria

taldearen kontraesanak eta haustura, mozioaren kontra azalduz bata eta bertze bien arrazoi ezberdinetan oinarritutako abstentzioengatik, “niretzat ez dago

moziorik” Senperrek eta “Autodeterminazio eskubidea eta independentziaren alde nago baina nere taldearekiko koherentzia politikoagatik”

Agerrik. HBko Gogorzak bere azken hitzetan, bere burua abertzaletzat duen alderdiaren eta independente deitutako taldearen jarrerak salatu zituen.

Gasolindegiaren lanak aintzineratzen

“Autoservicio Vera s.l.” enpresaren gasolindegi berria egiteko abuztuaren hasieran hasitako lanak aintzineratzen da. Errepidearen bi aldeetan eraikiko dira instalazioak Zalaingo industrialdearen ondoan. Datorren urtearen haserako zabalduko omen da gasolindegia.

Joselu gose huelgan

Urriaren 13tik 19a bitarte egonen da gose huelgan Darocan aurkitzen den Joselu Etxeberria preso politiko beratarrak, kartzelaz kartzela eguberriak arte txandaka eginen den huelga orokorraren barruan. Bertzalde, Joseluk Urriaren 6an bete zituen 24 urte. Zorionak!

☐ **Ekintza** kulturalerik betetako Urria izanen dugu. Egitaraua, agenda orrietan.

B RADIO BIDASOA expert
Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77
BERA

3 urtetarako garantia eta 36 hilabete ordaintzeko.
Nork eskeintzen du gehiago?

LESACA

Kultur zikloaren ekintzak asteburu honetan burutuko dira

Larunbatean, gaueko 11etan, Gontzal Mendibil kantaria izanen da frontoian

AITOR AROZENA

Ortzegun honetan, hilak 10, kultur zikloari hasiera emanen zaio, arratseko 8etatik aintzinerako Koldo Amestoy ipuin kondalariak Kasino jatetxean egiten duen emanaldiarekin. Ortziralean, Urriak 11, bideo emanaldia izanen da Kasinon arratseko 8etan. Bertan, "Espioiak gu bezala" filmea izanen dugu ikusgai. Urriaren 12an berri (larunbata), eta gaueko 11etan Gontzal Mendibil abeslariaren kantaldia izanen da pilotalekuan.

Bertso saioa

Urriaren 12an, gazteen arteko bertso saioa izanen da pilotalekuan arratsaldeko 7etan. Parte hartuko duten bertsolariak, Jokin Sorozabal, Jon Maia, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Haritz Lopategi eta Igor Elorza izanen dira, gai-jartzaile bezala Estitxu



Kirol zonalderako lurak erosiko ditu laister Udalak

Fernandez eta Iñigo Olaetxea arituko direlarik.

Jaialdi hau Arrano elkarteak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin.

“Kanka”-k bigarren maketa aurkeztu du

Kanka rock taldekoek 9 kantuz osatutako «Beltz & Seltz» izeneko beraien bigarren maketa aurkeztu dute. Oraingo hau IZ disketxean grabatu dute, Jesus

Suinaga teknikoaren ardurapean.

Kirol zonalderako lurak erosiko dira

PNV eta EA alderdien aldeko botoekin eta HBren aurkakoarekin, azken ple-noak, Konbentoa eta Asiloaren artean dauden lur-rrak erostea erabaki zuen, kirol zonaldea egin asmoz.

Lur eremu haundixkoena, «Laminaciones

de Lesaka, S.A» enpresarena da, eta honi 1.500 pza/m²ko ordainduko zaio. Partikularren eremuak dagoenez, 2.000 pza/m²ko ordainduko zaizkie.

HBko 3 zinegotziek erabaki honen aurka agertu ziren, beraien ustez “*lur eremuak Laminaciones-ek eman behar zituen, Udal honek ordainketarik egin gabe*”.

□ **Herriko** uren saneamenduak 88 milioi kostatuko du, horretarako 27 milioi t'erdiko kreditoa eskatu beharko delarik. Gai-nontzekoa Nafarroako Gobernuak eta aurrekontuetatik ordainduko da.

□ **2.756** biztanle ditu herriak, martxoaren 1eko padroiaren arabera.

□ **Irunetik** Dantxari-nearaino doan errepidea lehenbaitlehen moldatzea eskatuko dio Udalak Nafarroako Gobernuari.

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

★ **KIXKUR** ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264

Kultur astea garatuko da hilaren 11, 12 eta 13an


Herriko ehiztarietako uso postuak ere banatu ziren

PELLO APEZETXEA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eman-dako 100.000 pezetetz, Altxata Elkarteak ere laguntzen duelarik, kultur ekitaldi batzuk gauzatuko dira urrian, 11, 12 eta 13an xeheki. Inauteriei buruzko diapositiba saila ikusteko aukera izanen da ortzira-lean, larunbatean haurrentzako bereziki antolatuko direla, mimoa... Igandean, hilak 13, kantaldia burutu nahi dute, oraindik ezin badugu izenik eman ere.

Etxarlatsako bidegurutzean idorpea

Esplikazioa lehenik. Irungo karreterarekin Etxalarkoa biltzen den inguruak, Etxarlatsa du as-



lazko kultur astean Etnologia erakusketa burutu zen

paldiko izena. Lehendik eskatua bazuen ere, bidegurutze horretan autobusaren zain egoteko idorpea presta dezala gogoratu dio Udalak Nafarroako Gobernari. Bertze herrietan ere egin beharra dela, eta

denak berdinak izatea dela egokiena, erran omen zuten lehen. Ea lehenbailehen ikusten dugun.

Ehiztariendako uso ehiza postuak

Subastaz kanpo, urtero

bezala, Udalak postu batzuk eman dizkie herriko ehiztarietako: 4. eta 5. postua, 208.000 pztatan; 6., 8., 9. eta 9. bis, 89.000 pztatan.

Bortzirietako buru akasdunentzako bizilekua

Orain arte Berara lan egitera joanez, eguna han pasatu ondoren, etxera itzultzen dira buru akasdunak. Bortzirietan diren 30 akasdunetarik, ba omen dira bi, etxean egoterik ez dutenak, behar duten begiramenduaz zainduak. Hori dela-ta, beraiantzat etxebizitza prestatzea pentsatu du Bortzirietako Zerbitzu Sozialerako Mankomunitateak. Udalarari ongi iduritzen zaio proposamena.

IGANTZI

Depuradoraren eraiketa hasi da azkenik

Zikinkeria Latsa errekarara iritsi baino lehen garbitzeko erabiliko da

OSKAR TXOPERENA

Duela aste batzuk depuradora egiten hasi ziren Nilsako langileek. Jakinen duzuen bezala Iozango errekan egiten da. Zertarako den? Igantziko zikinkeria guztiak Latsa errekarara iritsi baino lehen garbitzeko. Badira urte batzuk saneamendu sarea egin zela

eta segituan egin behar omen zuten depuradora, baina gauza bat eta bertzea zela medio ez da orain arte hasi.

Urtebete falta 1992ko bestetarako

Joan dira aurtengo bestetak ere. Inongo okerrik gabe joan badira ere ez zaigu ez gusto onegia gelditu

ahotan. Arrazoia euria izandu da. Egia erran bazen euriaren beharra, baina guzti guztia Igantziko bestetarako altxatzea... Programaren erdia ezin beterik gelditu da: Haurren eguna, pilota partiduak, etabar... Noiz arte jarraitu beharko dugu Igantzin leku estali gabe? Izandu da baita ere esperientzi berri po-

sitiborik, hau da, bertsoilarien jaialdia eta soka-tira txapelketa. Jendea izugarri gustatu zaizkio.

Dena den, kultur komisiotik adierazi zaigunez,



(bertze aldean segitzen du)

bestetan suspenditu diren gauza gehienak Aste Kulturallean eginen omen dira, beraz antolaketan parte hartu nahi duenak adi egon dadila bileretarako eginen diren deialdiei.

Musika Herriko Etxetik

Konturatuko zineten bestatan musika bazegoela Herriko Etxeko balkoian. Musika tresna bat erosi omen du Udalak besta egun eta igandeak pixka bat

alaitzeko. Ez da idea txarra.

Eskola moldatze lanak aintzinerara segitzen dute

Aintzineko ale batean aipatu bezala, ari dira eskola apaindu eta moldatzen. Ataria ixteko ate berria paratua dago eta orain garbitu eta pintatu behar dute eskola. Ez da nolana-hi geldituko eskola berri-tua.



ARANTZA

Udalak Euskal Herriaren independentzia aldarrikatu zuen

HBko hiru zinegotzien eta EAkoaren onespina jaso zuen

JON LARRETXEA

Arantza izan da Nafarroako hirugarren herria, Euskalherriaren independentzia aldarrikatzen duena, Etxarri-Aranaz eta Goizuetaren ondotik.

Mozioa HBk aurkeztu zuen eta EAko zinegotziaren oneritzia jaso zuen; PNVk berriz, mozio alternatiboa presentatu zuen, baina bere taldeko hiru zinegotzien laguntza besterik lortu ez zuenez, ez zen aurrera atera.

Urak herriarenak izateko bidean

Udala eta uraren sozие-



Arantzako udalak independentzi aldarrikatu zuen

dadea hasiak dira lanean urak munizipalizatzeko asmoan, izan ere horretarako borondate garbia azaldu bait dute bi aldeak.

Orain arte herriko urak soziedade batek gestionatzen zituen, orain berriz, hori Udalara pasatzeko asmoa azaldu dute, horretarako

komisio bat sortu dutelarik. Komisio hau soziedadeko eta Udaleko partaidez eta zenbait teknikoz osatuko da, bere lehen lana instalakuntzen balorazioa izanen delarik. Gero, ebaluaketa horren gainean akordio batetara iritsi beharko da eta honekin Diputaziora jo, dirulaguntza lortzeko. Emanen dugu aurrerago ere honen berri.

Idazkariari, agur

Azken urteotan idazkari lanetan jardun duen Pilar Txueka Berara joan zaigu. Ia hurrengoia laister datorren eta agur eta suerte ona Pilar-i.

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

Udalak Larrakaitzeko tunela eskatu dio Nafarroako Gobernuari

Proiektua orain dela urte bat egina dago

PATXI PETRIRENA

Sunbillako Udalak, abuztuaren 2ko plenoan hartutako erabaki batean, Larrakaitzeko tunelaren proiektua errealitate bihurtzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

Udalaren arabera, Iruñea eta Irun batzen dituen N-121 errepideko puntu beltza da bihurgune aldapatsu hau, bertan gertatu diren istripuek argi erakusten dutenez. Hori dela eta, dagoeneko Larrakaitzeko tunelaren proiektua egina dela jakinik, iniziatiba hauek hartzea erabaki zuen



Larrakaitzeko tunelak, 120 gradutako bihurgune aldapatsua ezabatuko du

Udalak:

1.- Nafarroako Gobernuari, proiektua eginbidean jartzeko eskatzea, eta 2.- Inguruko Udalei akordio

honekin bat egin dezaten eskatzea.

Oraingoan, aldeko erabakia hartu dute herri hauek: Doneztebe, Urda-

zubi, Igantzi, Lesaka, Baztan, Elgorriaga, Bertizarena eta Etxalar. Bertze zenbaitek berririk igorri ez dutelarik oraindik.

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - LEITZA



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Zure publizitatea
4.600 etxetara
zabaldu nahi baduzu,
deitu 631188ra

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN ARON honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tlfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

ITUREN

Jende ugari Joaldunen Egunan

120 lagunetik goiti bildu ziren bazkari herrikoian

IBAN ISASI

Aurreko bi aleetan iragarri genuen bezala, Irailaren 21ean Joaldunen Eguna ospatu zen Iturenen. Saralegi eta Handiarenak irabazi zuten Mindegia eta Fagoaga bikotearen aurkako aizkora apostuan, segundu dezima guttiagatik. Goizean eta programan agertzen ez bazen ere txalaparta eta toberak egon ziren joaldunekin batera. Aipatu Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariak izan genituela gure artean. Jende ugari egon zen bazkal orduan, 120tik gorako lagunek parte hartu bait zuten, ondoren dantzaldia egon zelarik IZOTZ



Programan agertzen ez bazen ere, Joaldunekin batera, txalaparta eta toberak egon ziren Iturenen

taldearekin.

Subentzinoa

«Kilometroak» entzat

Bergaran, Urriaren 6an, "Igo tipi-tapa, euskararen aldapa" lemapean ospatu

den bestaren antolaketa-rako 10.000 pezeta eman zituen Udalak, abuztuaren 3an ospatutako plenoan. Baita ere, aipatu beharko da aurtengo Nafarroa Oinez

Atarrabian (Villava) ospatuko dela Urriaren 20an. Hementxetik denok animatzen zaituztegu "Euskaraz bizi" lemapean ospatuko den deialdira.

BEATRIZ
ILEAPAINDEGIA
 San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- Solarium-a
- Ileapaindegirako produktuen salmenta
- Ordua eskatu

BEINTZAKO
OSTATUA
 Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN


BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
 KOTXE BERRIEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 Herriko Etxeko Plaza - BERA

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Intitaren



Udazkeneko moda
 Estilo propioz
 egindako arropak.

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

A R R O P A K

TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
 ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

SANTAMARIA
Jatetxea
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
 Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Nafarroako Aizkolari txapelketa igandean burutuko da


Guztira, hamarna enbor moztu beharko dituzte bost partaideek

TXEMA ALDABE

Igande honetan, urriak 13, eguerdiko 12,30etatik aintzinerara burutuko da Doneztebeko frontoian Nafarroako Aizkolari txapelketaren finala.

Bertan parte hartuko duten aizkolariak honako hauek izanen dira: Donato Larretxea (Bera), Mikel Mindegia (Zubieta), Antonio Jaunarena (Zubieta), Felix Etxeberria (Sunbilla) eta Floren Nazabal (Etxarri - Aranatz).

Bakoitzak egin beharko duen lanari dagokionez, kanaerdiko 4 enbor, 60 ontzako 4 enbor eta 72 ontzako bi enbor moztea izanen da.



Eskualdeko lau aizkolari izanen ditugu Nafarroako txapelketan. Goian, Donato Larretxea (Bera), Mikel Mindegia (Zubieta), Antonio Jaunarena (Zubieta) eta Felix Etxeberria (Sunbilla). Ezkerraldean, Etxarri Aranatzko Floren Nazabal

Txapelketa honen antolatzailea Nafarroako Herri Kirol Federazioa da,

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol sailak, Nafarroako Aurrezki Kutxak eta Lan-

kide Aurrezkiak laguntzen dutelarik.

Leku-eder zinean 3 langile behar dira

1991 - 92 denboraldirako, operadore bat, takilerobat eta atezain bat behar dira. Postu hauetariko bat nahi duenak, Udaletxean Urriaren 12a baino lehen eman beharko du izena.

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.


SARA

Elizanburu urtea dela eta, diska aurkeztuko da elizan

OLHAIN ELKARTEA

Urriaren 12an, arratseko 9etan iraganen da Sarako elizan Elizanburu idazlearen oroimenez kantaldi berezi bat. Denbora berean, Euskal Kultur erakundeak eta Elkar Etxeak Olhain elkartearen laguntzarekin ateratutako diska eta konpaktuaren aurkezpena egingen da. Ekintza huntan parte hartuko dute artista frangok:

Kantarietan: Beñat Achianp, Txomin Artola, Pierpol Berzaitz, Jojo Bordagaray, Pantxo eta Ramuntxo Carrere, Michel Ducau, Anje eta Maitexa Duhalde, Eñaut Etxamendi, Beñat eta Marc Eyherabide, Niko Etxart, Ramuntxo Farigel, Maite Gas-



Urriaren 20an ospatuko da Uso besta

tanbide, Josu Ibarloza, Maite Idirin, Frantxo eta Guillaume Irigoien, Eñaut Larralde, Jama Larreburu, Erramun Martikorena, Peio Ospital, Maia, Iker, Gorka eta Koldo Robles, Aranguiz eta Magali Zubillaga.

Musikarietan, Beñat Amorena, Mikel Artieda, Frederic Gaillardet, Andoni Mercero, Carlos Rosat, Joseba Tapia eta Gonzalo Tejada.

Ageri gisa

Urriaren 13an Iragan

behar da 1926-27an sortutako Saratarren elgarretaratzea, "Les 3 Fontaines" jatetxean egingen den otuntzan. Izen emateak 59542615 tfnoan (Jeanne).

Uso besta

Urriaren 20ean ospatuko da Uso besta:

10etan meza Sarako kantariekin eta Uso Bataunaren ibilaldia bertze kofradiekin. **10,30etan** Luzeko partida. **Egurdian** Zazpiak Bat dantza taldea. **3,30etan** kantariak eta indar jokoak. **5etan** trinketea esku uskako partida eta **7etan** plazan, dantzaldia. Egun guzian txistulariek animatuko dute plaza. Egun hortan Sarako ostatueta jaten ahal duzue uso frango. Zatozte!

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak Antena kolektiboak eta banakakoak Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN BERA, Agerra Industrialdean

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

KOXXKONTA



Sagardotegia Erretegia

Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Herriko zaborren arazoak konpondu nahi dira

“Obrak egiteko lizentzia eskatu behar da” adierazi du Udalak

ESTEBAN AROZENA

Egun hauetan kaleratu den komunikatu batek dioenez, herriko zikintsunari aurre egiteko asmatan da Udala, arazo honi irtenbide bat ematearren argibide eta aholku batzuk azaltzen direlarik aipaturiko bandoan. Zikinkeria hauek esan, oso txalogarria dela Udalaren ustetan Urumearen garbitasunaren alde goizuetar askok egingako lana, baina konzientziatu behar omen genduke herrian bertan basurak sortzen dituen arazoaz: zaborrak erreka bazterretan, herrian zehar dauden paperontziak ez erabiltzeaz gain, oso egoera txarrean, plazan jendea eseritzen den koxka inguruak pipa-azalez edo paperez beteak...

Udalak dioenez oso errez aldatu litezke ohitura hauek eta herritar guztien kolaborazio pixkat beste-



Herrian bertan basurak sortzen dituen arazoaz konzientziatu behar genduke Goizuetarrok

rik behar ez delarik, adibidez, aurretik adieraziak dauden egunetan bakarrik zaborrak kaleratuz. Bestaldetik, tresnaren bat bota beharrean aurkituz gero, udaletxean jakinaraziko omen dute non bota litekeen. Azkenik, paperontzi berriak jartzeko asmoa azaltzen du Udalak “*orain artekoak baino gehiago eta hobekiago erabiliko direlakoan*”.

“Obrak egiteko lizentzia eskatu behar da”

Etxeetan obrak egiteko herritar guztiek lizentzia edo baimena eskatzera behartuak daudela oroitarazten du Udalak beste bando batean, eta horrerik buruz zalantzaren bat izanez gero (noiz edo nola eskatu, etabar...) behar den informazioa Udaletxean bertan ja-

sotzeko aukera bai omen da.

Bestalde, edifizioak edo lurak erosi edo beste edozein motatako proiektu berriren bat egiten hasi aurretik, gai hau eramaten duten kontzejalei ala Udaletxean konsultatzeko esaten du komunikatuak, horri buruzko zer nolako baldintzak edo arauak dauden jakin dezaten interesatuek.



ESTETIKA ❁ SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

Perretxiku - ziza eta onddoen txapelketa, igande hontan

Lehen ere egiten ziren Leitzan

ANTTON ERKIZIA

Aldaketarik ez bada, igande hontan, urriak 13, Mikologi txapelketa egiteko asmoak daude, perretxiku-ziza eta onddoekin, Kultur taldeak antolatuta.

Egia esateko, aurtengoa ez da txapelketa modura eratuko seguraski, "Aranzadik" Donostian gisako bat antolatzen bait du egun berean. Hemen, aurtengoz, erakusketa moduko zerbait egin nahi da, eta marrazkiak, hurrengo urterako kartela aukeratzeko. Asmoa: mikologi mundu hori bertatik ezagutzera animatu eta datozen urtetarako jendea zirikatzea.

Duela 20 bat urte Tolosan perretxiku txapelketak gori-gori zeudenean, eta aurretik ere, Aurrerak antolatzen zuen modu hortako erakusketarik eta esan zaigunez, izugarrizko jen-

de pila bereganatzen zuen. 1969. urtean Naparroako txapelketa Leitzan izan zen. Biltzen eta sailkatzen ez ezik, zizak eta onddoak jateko prestatzen ere oso esku ona omen zuten hemengo batzuk. Sebas Tirapu eta Luis Fagoaga, besteak beste, ibiliak dira onddo gastronomi txapelketa batzutan.

EA eta HB independentziaren alde

Leitzako HBk eta Eak elkarrekin sartutako mozio bat aztertu eta baietza eman zion Leitzako udalak, irailaren 27an izandako batzar berezian. Mozio horrek haxe dio: Euskal Herriak bere geroa bere buruz erabakitzeko eskubidea duela (Autodeterminazioa) eta independentzia aldarrikatzen du. Gainera, Espainiako eta Frantziako esta-

tuek ez dezatela gehiago galerazi bortxaz eskubide horiek.

Mozioak zortzi boto aldeko izan zituen (EA eta HB) eta bat aurka (UIL).

Batzar aretoan bildutako jendeak txaloka hartu zuen Udalaren erabakia eta "Independentzia" zioen pankarta bat zabaldu zen, HB eta Eako militanteak bazter banatik eutsiz. Ondoren, alkateak ikurriña jarri zuen mastil-makilean.

Abadekurutzeko historia zaharra...

...gogora ekarri zuten lehengo igandean, mendi hortan burututako ospakizun txiki batekin.

Leitzatik Aranora, San Migelen bidetik joan eta Abadekurutze edo Baratzazarreta dago, Urepel eta Mandoegi inguruan. Dokumentu zahar batek dioenez, hor hil zuten Tomas

Arribillaga apaiza, «Malesakenean» jaio eta bizi zena. 1779ko urriaren 27a zen.

Diotenez, leitzar apaiza hau pilotan ona zen, eta egun hortan Aranon pilotan aritzetik zetorren, seguraski apustutan irabazitako diru franko poltsan. Etxerako bidean, hil egin zuten puntu hortan, behar bada dirua kentzeko. Baina beste bertsiorik ere bada, seme bat bait zeukan apaiza honek.

Hori gertatu zela eta, mendi hortan gurutze bat ezarri zuten, gero desagertuko zena. Eta lehengo igande hortan, mendigoizale talde bat bertaratu zen, berriro gurutzea ezartzera eta historia zaharra gogoraztera. Leitzatik ere mendi ibilaldi bat egin zen, eta Goizuetako Bixente apaiza ere hara agertu zen erresponsoa errezatzera.



Herriko zaborren arazoak konpondu nahi dira

6 puntutako idatzia ahobatez onartu zuten zinegotzi guztiak

JUANA MARI

Aresoko herriak mendi asko ditu horregatik oso aberatsa da, ehiza postu asko bait daude. Etxe bakoitzean ehiztari bat dago, ohitura hau pasatzen bait da gurasoengandik semetara. Ehiztarik osatzen duten elkarte dago eta bere izena «Usoa» da. Talde honek ehiza postu hobere-nak aukeratzeko dituzten urtero eta dirua eta paradak apaintzea bere kontu izaten dute. Tenporada ailegatu baino lehen preparati-bo guztiak egiten dira. Beste postu guztiak subas-tara ateratzen dira urtero diru asko egiten delarik, herriko kutxatara sartuz. Aurtengo urtean 2 miloi gutxi gora behera izan



oanen da postu hauengatik jasotako ditutza.

Euskara ikastaroa lehenengo aldiz

Talde ttikia baino poli-ta (8 edo 9 pertsonako) animatu da aurtengoan lehen aldiz euskara ikasta-

roan hasteko. Ikastaro hau finantzatzeko laguntza eskatu zaio udaleko kultur eta euskara zinegotziari eta ziur gaude nahiz gutxi, laguntza pixkat emango du-tela. Baita ere, euskara zer-bitzuak diru pixka bat des-tinatzen du gurasoentzat,

aurtengo kanpaina horren buruz izan baita. Baita ere laister hasiko da sukaldari-tza ikastaro bat EPAk antolatuta. 19 pertsonak osatzen dute. «Pake-toki» elkarteak bere lokalak utzi ditu ikastaro hau emateko.

EZKURRA-ERATSUN



Abuztuaren azken aldera, "Absoluzio Eguna" deitutakoan, autobusa bat jende joan zen Eratsun eta Ezkurratik Aralarko San Migelera
ARGAZKIAK: J. M. SOTIL



BAZTAN

Gartzaingo bestak ospatuko dira Urriaren 11tik 14ra

Mister Tarzan-en aukeraketa eta kantzontzilo karrera izanen dute astelehenean



Ortziralean hasi eta astelehena arte izanen dituzte bestak Gartzaingoan



Arriaitzko jauregia moldatzen hasi dira

JOSEBA I.

Ortziral honetan, **hilak 11**, arratsaldeko 8etan botakohetearekin eta ezkil jotzearekin emanen zaie hasiera aurtengo Gartzaingo beste.

Gaueko 9,30etan Baztan zopak izanen dituzte eta 12etatik aintzinera dantzaldia JATOR taldearekin.

Larunbatean (urriak 12) **Pilarika eguna** ospatuko dute. Goizeko 9etan diana txistulariekin. 12,30etan Meza Nagusia Pilar-eko ermitan. Ondotik, Mutil Dantzak eta herriko dan-

tzari ttikiak. Arratsaldeko 6etan, ORRITZ dantza taldea arituko da Udazkeneko Jira-bira progamaren barnean kokaturiko emanaldian. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia Jator taldearekin (gaupasa). Ondoren, zingar - jatea.

Igandean, hilak 13, **Haurren eguna** burutuko da. Goizeko 9etan diana. 12,30etan, herritik kanpo daudenei oroimenez meza izanen da. Ondoren, Mutil Dantzak eta Arizkungo Elkartasuna Dantza Taldea.

5etan, txokolatada eta jokoak haurrentzat.

5,30etan, Aizkolariak arpanlarien kontra. Aizkolariak (Goñi eta Letona) kanaerdiko 10 enbor moztu beharko dituzte eta arpanlariak (Iriarte eta Mugika) kanaerdiko enborrari 25 ebaki. Arratsalde eta gauez, dantzaldia AKARI taldearekin.

Astelehenean, **Urriak 14**, Goizeko 11etan mus txapelketa. 2,30etan zikiro - jatea. Arratsaldez Mister Tarzan-en aukeraketa. Arratsaldez eta gauez, dantzaldia Modestorekin. Gauez Kantzontzilo karrera eta beste bukaera emateko sorgin - salda.

ttipi-flash

☐ **Iruritako** frontoia egiten ari dira. Dagoeneko pilareak goratuak dituzte.

☐ **Iruritako** elizan kalfakzioa jartzen ari dira auzolanean.

☐ **Erratzuko** eliza ere moldatzeko asmoa omen dute.

☐ **Ehizturiak** puestoak prestatuak dituzte urriroarekin batera. Puestoak ongi antolatzeagatik "Caza y pesca"-tik laguntza lortu dute.

☐ **Anizko** bestak giro ederrean pasatu zaizkigu.

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939

ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

50 miloi jasoko du herriak Nafarroako Gobernutik

Lezerako bidea antolatzeko, lurra erosteko eta parkina egiteko dirulaguntza da

MARGARI eta KORO

Nafarroako Gobernuaren Komertzio eta Turismo sailak 50 milioietako dirulaguntza emanen dio herriari: 7 miloi pasatuak subentzio bezala eta 42,1 miloi kreditu edo aurrerapen bezala urte batzuen buruan itzultzeko. Diru hau lurra erosteko, parkina egiteko eta lezerako bidea antolatzeko da.

Bide hau ia gan den astean hasiak dire egiten, 700

m²ko adokinezko kaltzada bat (lezetatik Narkoneraino) eginez. Aipatzen ahal dugu ere lan hauetan eguraldiak ez duela batere lagundu: bi egunez egin zuten lana dena alferrik izan delakoz, bota zituen euri erauntsiekin adokin guztiak mugitu bait dire eta berriz ekendu eta paratzeko lana izanen da.

Udalak erosi ditu lurrak eta obrak urte bat baino lehenago bukatu beharko dire.



Momentuz eguraldiak laguntzen ez badu ere, urtebete baino lehenago bukatu beharko dituzte obrak

ZUNZARREN
Gestoria

• Allianz Ras Aseguruak

• Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2

31700 ELIZONDO

✿ **ESTHER** ✿
LORADENDA

✿ Orain zabaltzen dugu
✿ larunbata eta igandetan irekia
Tfnoa: 58 09 71 - ARIZKUN

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

FZ
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu



BAZTAN
ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Onddo ainitz salgai Dantxarinean

ALIZIA OLAIZOLA

Asteondar hauetan Uitzama aldetik kamioi ainitz etorri da onddoz beterik Dantxarineako Bente-tan saltzeko. Erosle gehienak frantzesak ziren eta dirudienez, azkarki saltzen ari da. Kontserbak egiteko ere erosten ari da jendea.

Muga arratseko 10etatik 7etara itxia

Urriaren lehenean hasi ziren muga arratseko 10etan ixten eta goizeko 7etan idekitzen. Maiatzaren lehenetik orainarte,



arratseko 12etan ixten zen.

Euskara klaseak

Aurten euskara irakas-

le bat jartzeko asmoak dire, bainan hori lagun talde bat biltzen bada. Orduan ja-

rriko zen. IKA eta AEKko irakasleak prest leudeke etortzeko eta horrela, jendeak herritik mugitu gabe ikasi ahal izanen luke.

Iaz 4 neska joaten ziren Sarako gau-eskolarat alfabetatze klaseak hartzerat.

Eguraldiaren aldrebeskeriak

Irailaren ondarraldean eguraldi txarrak egin ditu, euri eta haize ainitzekin. Haizeak belaietako artoak lurrera bota ditu eta iraleku batzuk, pikatuak zirenetan, haizeak iratzea eramanez.

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE



EZKONTZAK

Pierre Etcheverry eta **Bittori Dainciart**, Sarakoak.

Julian Zabaleta Zabaleta eta **Amaia Sudupe Alduntzin**, Leizta eta Azkoitia, abuztuaren 24an.

Ascension Olano Sestorain eta **Lola Otxotorena Galarza**, Leizta eta Berueteakoa, irailaren 7an.

M^a Carmen Labaien Alduntzin eta **J. Luis Igartua Etxarri** Leizta eta Huitzikoa, irailaren 14ean.

M^a Josefa Agirre Sarratea eta **Ignacio Odriozola Arribillaga**, Leitzakoak, irailaren 14ean.

Juana M^a Sagastibeltza Sagastibeltza eta **Mikel Galparsoro**, Leizta eta Donostiakoa, irailaren 21ean.

Corpus Urroz Mutuberria eta **J.Javier Elizondo Osinaga** Leizta eta Latasakoa, irailaren 21ean.

Ana Perkaz Aldaia eta **Jesus M^a Bengoetxea Mariezkurrena** Iruña eta Leitzakoa, irailaren 28an.

Isabel Barcos Zapater eta **Narciso Saralegi Ansorena**, Peralta eta Leitzakoa, irailaren 28an.

Juan Antonio Pacheco Azkarate eta **Ana Dozagarat Gil**, Elbetea eta Donostiakoa, irailaren 14an.

Fco. Jose Torres Perez eta **M^a Pilar Pajares Martikorena**, Jaen eta Tuterakoa, irailaren 7an.

JAIOTZAK

Aitziber Erasun Mendikoa, Beintza-Labaienen, irailaren 6an.

Thomas Etchegaray, Saran, irailaren 6an.

Anabel Urkiola Etxegia, Leiztan, uztailan 15ean.

Izarne Zabaleta Caballero, Leiztan, abuztuaren 23an.

Nahia Leizta Alduntzin, Leiztan, ekainaren 29an.

Alaitz Urretabizkaia Alduntzin, Leiztan, abuztuaren 20an.

Andoitz Azurmendi Sagastibeltza, Leiztan, abuztuaren 21an.

Alaitz Morato Perurena, Leiztan, abuztuaren 10ean.

Goretti Zubillaga Goñi, Leiztan, uztailaren 1ean.

Jon Zabaleta Sukunza, Leiztan, Abuztuaren 8an.

Joseba Zubillaga Sestorain, Leiztan, abuztuaren 1ean.

Maite Mendibil Petrarena, Sunbillan, Irailaren 12an.

Iñigo Arana Iñiguez, Beran, irailaren 12an.

Manuel Moreno Alunda, Beran, irailaren 14an.

HERIOTZAK

Jean Soudre, Saran, irailaren 8an, 87 urte.

Francisco Retegi Etxebeste, Lesakan, irailaren 28an, 54 urte.

Rosario Sorondo, Arantzan, irailaren 29an, 98 urte.

Jose Ramon Sagastibeltza Billa-bona, Leiztan, irailaren 22an, 46 urte.

Francisco Alkoz Larrea, Leiztan, irailaren 12an, 82 urte.

Mikaela Elizalde Mutuberria, Eratsunen, irailaren 14ean, 77 urte.

Jose Santesteban Apeztegia, Sunbillan, abuztuaren 16an.

G.M.G.


MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

GAMARGA S.A.



**GOIZUETA
KIROLAK**

**Kirolak
Mendirako artikuluak**

Beheko Plaza 10 LESAKA

Euskara irakaskuntzan nagusitzen ari

Eskualdeko ikastetxe guzietako 5.018 ikasleetatik %54,9ak euskaraz ari ditu burutzen bere ikasketak aurtan

Eredu ezberdinen ezarpena zonaldeka

Duela 25 urte eman zion hasiera prozesu honi Leitzako ikastola zenak. Geroztik eskualdeko bertze herrietan, han-hemenka, ikastola gehiago sortuko ziren eta bide batez, Eskola Publikoan ere euskal adarri emanen zioten hasiera beraien eskeintzaren barnean. Azkeneko 25 urteotan hasitako prozesuaren fruituak, beraz, ederki nabari dira gaur egun eredu diferentetan dauden matrikula kopuruei begiratuta. Eskualdeko ikastetxeetan Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean dauden 3.448 ikasleetatik %63,4a euskaraz ari da ikasten. Irakaskuntza ertainetan aldiz, prozesu hau ez dago arestikoaren maila berdinean, izan ere, ikastetxe ezberdinetan matrikulatuta dauden 1.570 ikasleetatik %36,2a bertzerik ez da ikasketak euskaraz burutzen ari dena. Nolanahi, urtetik urtera kopuru hori haunditzen ari da hauetan ere.



Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO/EGB)

Bortziriak

Eskola Publiko, Bera eta Lesakako Ikastola eta Berako Jesusen Bihotza Ikastetxeen artean 1.116 ikasle daude guzira. Hauetarik 650 (%58a) D Ereduko ikasleak dira, 51 (%4a) B Ereduko ikasleak eta azkenik 415 (%36a) A Eredukoak. D Eredurik ez duen ikastetxe bakarra Berako Jesusen Bihotza Ikastetxea da.

Baztan-Urdazubi

Zugarramurdi

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Eskola Publiko eta Baztango Ikastolaren artean 980 ikasle daude guzira. Hauetarik 498 (%51a) D Eredukoak dira, 27 (%2a) B Eredukoak eta bertze 461 (%47a) A Eredukoak. D Eredurik ez duten eskola bakarrak Urdazubi eta Zugarramurdiko Eskola Publikoak dira

Malerreka

Bertizarana

Doneztebe, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Legasa, NARBATE, Saldias, Sunbilla eta Zubietako Eskola Publikoetan 688 ikasle daude matrikulatuak guzira. Hauetarik 474



(%66a) D Ereduan, 47 (%8a) B Ereduan eta 167 (%26a) A Ereduan. Doneztebeko Eskola ezik gainontzeko eskola guzietan euskaraz bakarrik ematen dira klaseak.

Areso

Goizueta

Leitza

Hiru Eskola publikoen artean 658 ikasle daude. D Ereduan 566 (%86a) daude matrikulatuak. B Ereduan ez dago bakar bat ere eta A Ereduan daudenak 92 dira (%14a). Datuotatik ageri denez, Leitzaldea dugu eskualde osoarekin konparatuta D Ereduan matrikula kopururik altuena duena OHOn.

Irakaskuntza Ertainak:


Lanbide Heziketa, Irakaskuntza Ertainen Erreforma (REM), BBB/UBI

Goian aipatutako modalitateak eskualdeko 5 zentrutan ikas daitezke. Hau da, Bera, Elizondo, Leitza, Lekarotz eta Oronotzen, irakaskuntza ertainetako modalitate horietako zenbait ikas daitekeela, alegia.

Aldameneko ilustrazioan datozen tauletan ikus ditzakezue zentruka eta ereduka dauden matrikulazio kopuruak. Dena dela, OHoko portzentaiekin konparatuta, D Ereduaren matrikula kopuruak dextente tikiagoak dira irakaskuntza ertainetan. Modu horretara, guzitarra dauden 1.570 ikasleetatik D Ereduan 569 ikasle dira matrikulatuak (%36a), B Ereduan 12 baino ez (%0,7a) eta A Ereduan azkenik, 989 ikasle (%62,9a).

Ageri denez, irakaskuntzaren euskalduntze prozesuak ez du oraindik bete-betean hartu Irakaskuntza Ertainen maila baina prozesuak berehontan segitzen badu, kopuru horiek aldatzen joanen dira urteekin batera.

Ikasle kopuruak herrika eta ikasketa hizkuntzaren arabera



A Eredua: Ikasgai guziak erdaraz bakarrik ematen dira

B Eredua: Ikasgaiak erdaraz eta euskaraz

D Eredua: Ikasgai guziak euskaraz bakarrik ematen dira

Tere Ibarra: “Nazioarteko erakusketetan ibiltzeak izugarritzko segurtasuna ematen dit nire lanean”

Egon den azkenekoa, Paris inguruko Le Mans-eko feria izan da

Gaur egun emakumeak lan munduan hartu duen presentziak gero eta posibleagoa egiten ari du, orainarte bakarrik gizonezkoek betetzen zituzten lanbideak beraiek ere jorratzea. Gaur inor ez da horregatik gehiegi harrituko. Bainan halere, Tere Ibarren kasuak aparteko marka hautsia du aspaldidanik. Orain de 33 urte Elgorriagako Lekonean bere senarrarekin batera aroztegia berri-berritik zabaldu zuenetik, ogibidea eta gustora egindako lana batera joan dira geroztik. Ez bere gurasoak eta ezta senarrarenak ere, ez ziren lan honetan arituak inoiz. Nolanahi ere, holako kasutan eta batez ere nabarmentzen dena emaztekoa denean, badirudi bere ofizioa eta gauzak ongi egiten jakitea jendearen aintzinean demostratu beharra dagoela, kontutan hartua izan dadin. Dena dela, gure kasuan behintzat Terek ez digu deus demostratu beharrik, argi bait dago berak pentsatutakoa burdinarekin lortzea, gero eta sekreto gutiago duela bereztat.



«Hortik barrena ibiliz teknika berriaketa ikasteko aukera izaten da»

e

ta horretan, honez gero, aunitzek erreparatua dute. Orain bertan, izen haundiko feria batetan izan berria da, Le Mans-eko Nazioarteko Ferian, eta hauxe aitzaki nahikoa iduritu zaigu berekin solasalditxo hau burutzeko. Goian aipatu dugun beza-

la, eguneroko lanarekin batera han eta hemen antolatzen diren erakusketetara hainbatetan deitu izan ohi dituzte bera eta bere senarra edo semeren bat. Le Mans-era Irungo Udalaren eskutik joan ziren Euskal Herriko bertze zenbait artisaurekin bate-

ra.

Nolako izan da esperientzia hau?



Le Mans-eko feria izugarria da haundia. Bertan azienda, automobilak, mobleak, artesia... zeharri gauza daude. Hego Euskalerriko stand-ak nabe oso bat hartzen zuen. Sartu eta segidan Hondarribiako San Pedro karrika zegoen eginak maketan eta etxeetako balkoietan egiazko loreak eta guzi zituzten jarririk. Pentsazazu! Izugarri polita zen!... eta etxe hoietako behituan, denda bezala, artesia postuak zeuden... espartinak, bidria, portzelanak eta hainbat gauza. Irungo Herriko Etxea ere hantxe zegoen eginak eta ez zen ez jateko eta edatekorik eskeintzen zuten standik falta. Denetarik zegoen. Guri, Arabako Laguardia herriko etxe baten erreproduzioan jarririk gintuzten. Enfin! Uste dut hagitz imajina ona eman genuela!

Baina dena den, hor barrena erakusketa gehiagotan ere ibilia zara ezta?

Bai. Lehendik ere ibilia gara Parisen, Ingalaterran... eta Euskal Herriko hainbat eta hainbat lekutan ere. Orain bertan Iruñatik etorri berriak gara.

Interesanteak gertatzen al zaizkizu gisa honetako erakusketak?

Dudarik ez. Ez saltzen denagatik... hemen gehiagoko saltzen baita baina dena



Nolanahiko lanak eskatzen dizkiote. Orain bertan, Txekoslobakiara eramateko 400 mahai egin behar dituzte

den, gisa horretako esposizioak izugarritzko seguridadea ematen dizute, egiten duzun lana apreziatzen dela ikusten bait duzu eta gainera gauza eta teknika berriak ezagutzen dira, ideia berrietara idekitzen zara... Maila horretan hagitz inportanteak dira.

Zure kasuan beraz, eguneroko lanak eta

kreatibitateak, elkarrekin hartueman haundia dute?

Bai dudarik ez. Kreatibitatea ez da bonbilla bat bixtea bezala... arituz eta arituz lortzen da. Hasi eta beharbada ez da berehala gustokoa ateratzen... bertze modura saiatu... buelta eman... burniari gauza horretan juxtu forma egokia

eman arte.

Forma horiek inbentatu egiten dituzu edo estiloren bat segitzen duzu...

Bai, denetarik. Batzuk inbentatu, bertzeak ikusi eta gero nire tankera emanez... denetarik.

Eta zein da gehien eskatzen dizuten lana?

Tenporadak izaten dira horretan. Modak. Orain paretetako argiendako aplikeak eta pixkat gibelu dira eta berriak "rejak" eta mahaiak eskatzen dizkigute gehiago. Orain bertan, Txekoslobakiara bidaltzeko, hotelen batetarako edo... 400 mahai egin behar ditugu, lau hilabetetako lana, gogor arituz. Baina bueno, denetarik egiten dugu... rejak, farolak, mahaiak... Bistan da teknologiaren garaiaren ere, eskuz egindako lanek badutela lekurik. Kalitateak beti.

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Nafarroako Herriz Herri Txapelketan Sunbilla garaile Beran aintzinetik

Hirugarren posturako desenpatea egin zuten txingudearekin Nabarte eta Amaiurrek

Sunbillako frontoian burututako Nafarroako Herri Kirol txapelketan (640 kilotako mailan) Sunbilla suertatu zen garaile Berako ordezkariekin lehia gogorra izan ondoren. Konbinatuan, gorabehera haundiak izan ondoren Sunbillak irabazi zuen, eta soka-tiran berriz, Sunbillak lortu zuen lehen tiraldia, Berak bigarrena eta Sunbillak hirugarrena.

Azken sailkapenari dagokionez, Sunbilla izan zen lehena 8 punturekin, Bera bigarren, 6 punturekin eta berdinketa gertatu zen hirugarren postuan Nabarte eta Amaiurren artean, bakoitzak hiruna punturekin.

Berdinketa hau desegiteko, desenpatea egin behar izan zuten txingudearekin. Desenpate honetan, Nabarte nagusitu zen hirugarren postua lortuz, Amaiur laugarren postuarekin konformatu behar izan zuelarik.

Kirol jaialdi bikaina eskeini bazuten ere lau taldeek, erran behar da, bertalde, izugarritzko jendetza bildu zela Sunbillako frontoira (1.200 ikusle inguru) eta aipagarria izan zen, baita ere, antolaketa-aren maila ona.



Sunbillako Herri Kirol Taldea, 640 kilotan Nafarroako txapeldunak

Nafarroako aizkolari onenak Donezteben, hilaren 13an

5 partehartzaileek hamarna enbor moztu beharko dituzte

Donato Larretxea (Bera), Mikel Mindegia (Zubieta), Floren Nazabal (Etxarri Aranatz), Antonio Jaunarena (Zubieta) eta Felix Etxeberria (Sunbilla) izanen dira Urriaren 13an, eguerdiko 12,30etatik aintzinerara Donezteben burutuko den Nafarroako Aizkolari txapelketaren protagonista nagusiak. Bertze

protagonistak, nola ez, enborrak: lau kanaerdikoak, lau 60 ontzakoak eta bi 72 ontzakoak.

Antolatzailea, Nafarroako Herri Kirol federazioa da, laguntzaile bezala, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol saila, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Lankide Aurrezkiak direlarik.



Larretxea, faboritoetarikoa bat



Beti Gazte Futbol-sala taldea aurkeztu zen

Zazpi Lesakarez, bi Etxalartarez eta Igantziar batez osatuko den Beti Gazte Areto Futbol edo Futbol Sala taldeak, hasia du dagoeneko denboraldia Gipuzkoako hirugarren mailan.

Aurten lehen aldiz arituko den talde honen partaideak honako hauek dira: Matias Telletxea, Manuel Telletxea, Justo

Agirretxe, Andoni Zamorano, Alberto Arakues, Fernando Zoco, Peio Telletxea "Elordi", Joxe Mari Telletxea "Txapeltegi", Patxi Rodriguez eta Rafael Retegi. Taldearen «koadro» tekniko bezala, Bernardo Samora eta Txiku Antzizar arituko dira.

Gogoratu etxeko partidoak, Irain eskolako frontoian jokatu dituztela.

Hamabostaldiko jokaldiak



Bera Herri Kirol taldea. Herri Kirol txapelketetan parte hartzen duten taldeen artean berrienetarikoa dugu Berakoa. Hala ere, emaitza bikainak lortzen hasi da, 640 kilotako mailan lan ugari emanaz Sunbillako txapeldunei.



Kirola egiteko estalpe falta. Azkeneko adibidea, aurten Igantziko San Migel bestetan nabaritu da. Pilota partidu bikainak egitarauan barrenean eta jokatu ezin euria dela medio. Noizko estalpeak?



B•E•R•A

Urriaren 14tik 27ra
EKOLOGIA ERAKUSKETA
Kultur Etxean

Urriak 25, ortzirala
Antzerkia
"BORDAXURI" taldearekin
Kultur Etxean
arratseko 10etan

Urriak 26, Larunbata
Jaialdia IZAN taldearekin
Altzateko Plazan
gaueko 11etan

Antolatzailea:
Berako Euskara Batzordea

Nafarroako
Gobernua

Berako
Udala



MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

• **Beran** alkilatzeo pisua behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

• **Piso** bat alokatu nahi dugu Lesakan edo inguruan. Tfnoa: 580541 (gauzez).

• **Beran baserri**, borda edo pisu bat alkilatuko genuke. Tfnoa: 631136.

Lana

• **Pertsona heldua** behar da adinekoa zaintzeko. Deitu 630259 tfnora.

• **Esperientziadun administrariak** edozertan laneginen luke. Tfnoa: 943 397388. Luis

• **Neska gazte batek** Lesaka edo inguruan lan eginen luke adintuak zaintzen edo bertze zerbituetan. Esperientzia. Baita Iruñan orduka. 450528.

• **Baztan** inguruan haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan eginen nuke. Tfnoa: 58 04 71.

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen

dira udalentsat, bertsolarientsat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Pultsera** bat, Lidia izena grabatua, galdu dut Eratsunen. Tfnoa: 615048. Josefa Urrutia.

• **Saski Zar** ostatua traspasatu edo saltzen da. Tfnoa: 63 1188.

• **Silvia Mazziorekin** frantses klaseak. Tf630108

• **Lesakan**, lokal polita, berria, alaia eta herriaren erdian traspasatzen da. 35 m² ditu, bi partetan, prezio interesgarrian. Zure ilusio polit hori errealitate bihurtu ezazu, etorkizunari begira. Deitu 637410ra.

• **Frantses**, ingles eta aleman klaseak ematen dira. Tfnoa: 45 15 65.

Salerosketak

• **Katu persa** salgai. 25.000. Tfnoa: 451518.

• **Ardi zakurkumea** salgai. 15.000. Tf.451518.

• **Moble**, tresna... zaharrak erosiko nituzke. Tfnoa: 451518.

• **5 urteko** behia 3 hilabete ernari dagoena, hiru urteko bertzea aretxeare-

kin, baita Alfa-Laval ordeñadora salgai. Tfnoa: 634133.

• **R-5 GTL NA-W** matrikulakoa salduko nuke. 50.000 kilometro ditu eta egoera oso onean dago. Tfnoa: 63 72 36.

• **3 esne-behi** onak saltzen dira. Tfnoa: 59 21 79. Oronotz- Mugaire.

• **Sukalde** kalefaktorea salgai. Dietrich. Tfnoa: 635004.

• **Bultaco** Matador salgai. Merkea eta egoera onean. Ehizarat joateko egokia. Tfnoa: 631188.

• **Bigarren** eskuko karrera txirrindula erosiko nuke. Ongi badago 35.000 pagatuko nuke. Deitu 637821 tfnora.

• **Bigarren** eskuko bi-bolin japoniarra salgai. 3/4 neurrikoa eta 15.000 pzatan. Tfnoa: 631499.

• **Kafetera** automatikoa salgai Goizuetan. Ia berria. Tfnoa: 51 40 64.

• **Pastor** aleman txakurkumeak salgai. Pedrigirekin. Tfnoa: 514061.

• **Bi siloi** egoera oso onean salgai. 10.000 pzta.

bakoitzak. Tfnoa: 51 04 92.

Harremanak

• **Amaia Lertxundiri** lagun baten partez, beti bezain jator eta sinpatika jarrai dezan. Muxu bat. Kristina. Gipuzkoa.

• **Leitzako** Pellori: Zorionak osaba izateagatik. Ea animatzen zaren laister aita izatera. Hiru lesakarraren partez. Goraintziak taldekoei. A.A., K.A., I.L.

• **Elizondoko** Kaptusarentzat, oso idortua bait dago: ea harrapatzen duen nesken bat eta gutxiago edaten duen, ez delakoz gehiago haunditu behar. SO-C matrikula.

• **Elbeteko** Alejandro Galarregiri. Munduko mutilik ederrena zara, zutaz maitemindurik nago. Musu haundi bat. Eburne.

• **Tasio eta Belen:** Jo ta ke, nahi baduzue nere "Club de fans"ekoak izan deitu. Ainara.

• **Leitzan** Tuteneko Mikaela Zabaletari, urteak betetzean (Urriak 11): Zorionak eta urte askotarako sendi osoak! Joxe Marik San Migeletik.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



CRISTALERIA VELATE

IRUGLASS
S.L.

Hilabete honetako eskeintza

% 15aren deskuentoa zeure
bainurako neurriko manporetan.

**DEITU ETA NEURTZERA
JOANEN GARA**

GEUK EGITEN DITUGU



- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal
isolatzailea (aislantea)
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak

- ✓ Grabatuak beira eta marmol
gainean
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Bainurako mobleak
- ✓ Ate korrederodun armarioak
- ✓ Ate korrederak ispiluarekin

TAILERRAK: Sakanpea karrika, 18. nabea - **ANTSOAIN**. Tfnoa: 13 02 41

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1
Tfnoa: 58 08 25

DONEZTEBE

Merkaderes karrika 5
Tfnoa: 450 991

IRUÑEA

Ermitagaina karrika 27
Tfnoa: 17 72 78

Billaba etorbidea

Tfnoa: 13 20 21

DONOSTIA

Segundo Izpizua 28
Tfnoa: (943) 27 02 51

V. LURRAREN EGUNA

BERA

1991ko Urriak 27

❖ V. Gasna Lehiaketa

❖ Erakusketak:

Eskulangintza

Barazkiak

❖ Karrika Animazioa

❖ Trikitixa

❖ Taloak eta Sagardoa

